

# Lau hildako eragin ditu bonba pakete batek Sevilla-1 gartzelan

Indar handiko eztrandak funtzionari bat, bi preso eta bisitari bat hil zituen

**L**au hildako eta zauritu ugari utzi ditu Sevilla-1 gartzelan atzo goizean eztanda egin zuen bonba paketeak: bi preso, funtzionari bat eta bisitari bat. Eskanerretik pasa ondoren lehertu zen, artezilariak oraindik iristeko zeudela. Bost kilo leherkariz osatua zegoen eta kalte handiak eragin zituen.

SEVILLA

Manuel Perez Ortega funtzionaria, Donato Calzado Garcia eta Jesus Sanchez Lozano presoak, eta bisitari joan zen Edmundo Perez Crespo dira bonba paketearen eztrandak hil ziren lau pertsonak. Zauritu ugari ere eragin zituen, hauetako zortzik ingresaturik jarraitzen dute eta bi egoera larrian daude Zainketa Bereziko Gelan.

Bonba paketeak goizeko hamaika t'erdietan egin zuen eztanda. Javier Romero, Sevilla-1 gartzelako zuzendariari igorria zen, Valladolidetik bidalia zen eta Transportes Acha enpresak utzi zuen gartzela honetan, Alfonso Garrido, Espainiako Gobernuko ordezkaririk jakitera eman zenez.

Paketeak biltzen dituzten gartzelako gelan zegoen eztanda egin zuen unean. Eskanerretik pasa ondoren lehergailua zela ohartu eta artezilariari deitu zion zuzendaritzak. Hauek iritsi aurretik egin zuen eztanda.

Manuel Perez Ortega funtzionaria eta Donato Calzado Garcia presoak hilda ingresatu zituzten ospitalean. Jesus Sanchez Lozano presoak arratsaldeko hirurak aldera aurkitu zuten



Leherketak kalte handiak eragin zituen espetxearen eraikuntzan.

EFE

hondakin artean, eta Edmundo Perez Crespo ospitalean hil zen, Zainketa Bereziko Gelan zutela.

Leherketa izan zen unean, presoak bisitatzera joan zen jendea zegoen Sevilla-1 gartzelan, paketea jasoa zegoen gelatik gertu. Zauritutako

artearen presoan familiarterko batzuk daude.

Leherkari bost kiloz osatua zegoen bonba paketea, baina ez da zehaztu zein material zen. Leherketak kalte handiak sortu zituen gartzelan, paretak behera etorri ziren eta

suhiltzaileek garbiketa lanak egin behar izan zituzten.

Leherketa izan ondoren Sevilla-2 gartzelan beste bonba pakete bat aurkitu zela pentsatu zen eta polizia-ko artezilariaren esku utzi zen aipaturako paketea. Leherketa izan zuten arren, barruan ez zuen inolako leherkaririk.

**PRESO POLITIKOAK SEVILLA-2RA**

Sevilla-1eko gartzelan dauden zazpirehun presoetatik sei euskal preso politikoak dira, eta bi katalanak. Zortziak eraman dituzte Sevilla-2 segurtasun handiko gartzelara, espetxe funtzionarioek jakitera eman zuten. Leherketa izan ondoren preso komun talde batek politikoei eraso nahi izan ziela zabaldu zuten arren, iturri ofizialek ez zuten hori baieztatu.

Era berean, leherketa izan baino minutu batzuk lehenago euskal eta kataluniar preso politikoek patioa utzi zutela zeldetara joateko zabaldu zuten zenbait funtzionario. Informazio hori gezurtatu egin zuen geroa Alfonso Garrido gobernu delegatuak. Preso hauek patioa beraien borondatez utzi zutenik eta leherketa baino lehenago beren zeldetara bueltatu ziren «gezur hutsa» dela esan zuten.

Garridok ez zuen zehaztu zer osaketa zuen indar handiz lehertu zen bonba paketeak, ezta zeintzuk diren horrelako atentatuen aurrean funtzionarioek hartzen dituzten segurtasun neurriak. Gobernu delegatuaren hitzetan, «egoera berri bat zabaltzen da, presoan eta beren familiaretakoengan eragina izan duelako». Gartzela barruan bizi den egoera guztiz normala dela aditzera eman zuten.

## Protestak iragarri eta segurtasun neurriak eskatu dituzte sindikatuek

SEVILLA

Gartzelako UGT, CCOO, CSIF eta USO sindikatuek atentatua gaitzetsi dute eta segurtasun neurri eraginkorrak jartzeko deialdia egin die agintariei. Beharrezko segurtasun neurriak hartzen ez badira, preso neurriak ez dituztela baztertzen iragarri zuten atzo sindikatu hauek. Era berean, astelehenean geldiduna eta manifestazio baterako dei egiteko bildu ziren atzo arratsaldeko zazpietan funtzionarioen sindikatuak. Bileraren ostean alderdi politikoekin ere biltzeko asmoa zuten protesta ekin-tzak erabakitzeke.

Atentatua izan ondoren, Sevillako agintari asko izan zen gartzelan. Manuel Chaves Andaluziako Juntako lehendakari esan zuenez, «hiltzaileek ez dute inoiz irabaziko». Alejandro Rojas Marcos Sevillako alkateak bere gaitzepena agertu eta «Sevillak horrelako atentatu terro-

rista jasan behar izana iraingarria» dela esan zuten.

Euskal Herrian, HBk atentaturikiko «bere mina» adierazi zuen prentsa agiri baten bidez. «Herri Batasunari negargarri iruditzen zaio Euskadik bizi duen gatazka politikoa biolentziaren bitartez adierazi behar izatea». Herri Batasunak dioenez, atzoko ekintza militarra «bapatekoa» izan zen, baina «dudarik gabe larria». 'Gesto por la Paz-Garraxi Isila' elkarteak berriz konzentrazio isilerako deitu du gaurko atentatua gaitzesteko.

Amnistiaren Aldeko Batzordea berriz, kezkatuta agertu da, «gertaera hauek aitzakizat erabiltzen direlako euskal preso politikoekin kontrako ekintzak bultzatzeko. Gartzelako zuzendaritzak atentatu posibleen aurrean erakutsi duen «erantzukizunik eza» salatu dute eta presoekin giza eskubideak errespetatu daitezela eskatu.

## Epaitzeko ikusia Arrese Garate euskal presoaren kasua

SEVILLA

Epaitzeko ikusia gelditu zen atzo Joseba Arrese Garate euskal presoaren kasua. 1989. urtean Sevilla-2 presondegian zegoela, «agente judizialaren aurka egindako desakato delituagatik» epaitu dute Durangoko 25. urteko gatzela.

Egun, Arrese Garate hamabi urteko gartzela zigorra betetzen ari da Alcazar de San Juan espetxean, Ciudad Real-en, ETA erakunde armatuko kide izateagatik. Fiskalak bi urteko gartzela zigorra eta 200.000 pezetako (10.000 libera) indemnizazioa eskatu zituen akusatuentzat, Sevillako 7. Epaitegi penalean.

Joseba Arrese Euskal presoak protesta idatzi bat helarazi zion gartekez arduratzen den epai-

leari, abokatuarekin harremanak mantentzeko oztupoak izan zituela salatuz. Eduardo Millanek, akusatua abokatuak, jakin erazi zuenez, Joseba Arrese Garatek Euskal Herrian zeukan abokatuari zenbait eskutitz bidali zituzten Sevilla-1 espetxean zegoen bitartean, baina horietako batzuk gartzela bertan gelditu ziren, nahiz eta epailearen baimenik ez izan eskutitz horiekin gelditzeko. Gauzak horrela, Espainiako gartzelaren politikarekin desadostasuna erakusteko idatzi judizial bat bidali zuen Arrese Garatek, askatasun ideologikoaren babespean.

Joan zen astean beste euskal preso bat, Zagarrei Moya, epaitu zuten, ustez Sevilla-1 gartzelako funtzionari bati eraso ziolako.

## 'Atocha S.A.ri' igorritako paketea Poliziaren aurkakoa zela dio ETAK

DONOSTIA

Joan den ekainaren 12an 'Construcciones Atocha S.A.' enpresari igorritako paketea «Poliziaren aurka zuzenduriko tranpa lehergailua» zela dio ETAK bere azken agirian. Bonba honen eztrandak polizia inspektoreorde bat eta ofizial bat hil zituen, indargabetzen saiatzen ari zirenean. Egin egunkariak atzo kaleratu zuen agirian, ETAK ez du autobidearekin lotu den enpresa helburu bezala aipatzen.

Ekainaren 5 eta 23a bitartean burututako beste zazpi atentatu hartu ditu bere gain erakunde armatuak. Enrique Aguilar Prieto, Armadako aire tenientearen hilketa dago horien artean. Ekainaren 8an Raul Fernandez Suarez, bere agirian droga trafikatzailatzat jotzen duen gaztearen kontra Errenterian burututako atentatua bere gain hartu du ETAK, eta baita Hernaniko 'Josetxo' tabernaren kontrakoa ere «droga trafikoa-ekin duen zerikusiatatik» dio erakunde armatuak.

Egun berean bi ekintza burutu zituen ETAK Italian, Iberia enpresa espainiarren ondasunen kontra bata Milanen, eta Bolonian bestea, Real Colegio Mayor Español ondasunen kontrakoa bestea. Ekainaren 12an 'Atocha S.A.' enpresari igorritako bonba paketeaz ere jabetu da ETA, baina ez du autobidea ezertarako aipatzen. Poliziari zuzendutako atentatua dela dio, TEDEX taldeko bi polizia hil ziren.

## Viviane Barriola euskal presoak Euskal Herrira itzuli zen atzo

XAN GOENAGA / BAIONA

Viviane Barriola, «Vivi» ezizenez ezaguna den Baiona Ttipiko ostalerasa Miarrizteko aireportura iritsi zen atzo, hiru hilabete Fleury Merogiseko presondegian iragan ondoren. Errepresioaren kontrako elkarteak deituta lagun eta militante ugari bildu ziren eta ongi etorri hunkigarria egin zioten.

ETAKo buruzagietarik ekarria den Josu Arkauz Arana Miarrizteko gelditu ondoren, Viviane Barriola, Baiona Ttipian atxikitzen duen «Aita Seme» ostatuan atxilotu zuen polizia judizialak, martxoaren 18an.

Ikastolako gurasoen artean Barriola senar-emazteak ezagunak dira Iparraldean eta Baiona Ttipian atxikitzen zuten «Aita Seme» ostatura abertzale anitzen bilgunea da.

**BESTE PRESO BAT LIBRE**

Daniel Arotzarene, Miarrizteko euskal militanteari, ongi etorria eginen zaio gau honetan, 20.45etan, Miarrizteko geltoki aintzinean. 1989ko abenduan IK-k emandako prentsaurreko baten ondorioz, Poliziak zenbait egun beranduago, abenduaren 12an, atxilotu zituen Daniel Arotzarene eta Xan Ansalas, eta gaizkile elkarte baten partaideak izatea leporatu ondoren presondegiratu zituzten.